



SUAK ERREKO EZ BALU

Eneko Barberena

2023
URTARRILA

Aezkoako mendi sute batean hiru mendizale hil eta geroko ikerketan, poliziak bi artzain atxilotu eta espezteratu ditu. Urtebete geroago, Konpainia izeneko aseguru etxeak Ainhoa Sanz peritua bidaliko du Aezkoara sutea ikertzera, aseguru etxeko bezero diren artzainen inplikazioa argitzeko; Konpainiak diru asko baitu jokoan bezeroak errudun joz gero. Horrela, Nabala herritik abiatuta, Ainhoak ezagutzen ez duen ingurune bat arakatu beharko du egia argitu nahian, Konpainiak jarri dion Joxe gidariaren laguntzaz. Bilaketa horretan, meatzaritza enpresen interesak, artzainen arteko ezinikusiak, Guardia Zibilaren presentzia itogarria, gaueko langileak eta beste hainbat elementu aurkituko ditu.

Beltza da gaua Euskal Herriko oihanean.

Su txingarrek emango ote diote Ainhoari bidea aurkitzeko nahikoa argi?

ELEBERRI BELTZA

ISBN: 978-84-19319-31-9
ORRIALDEAK: 392
FORMATUA: 12 x 19
PREZIOA: 20,00 €

NARRATIBA

NOBELA BELTZA



ENEKO BARBERENA MONDRAGON

Arrasate (Gipuzkoa), 1983
Erdi giputz erdi aetz, gaur egun Aretxabaletan bizi da. Literaturaren arloan ipuinak, poesia, elkarrizketak eta nobela jorratu ditu. Augustin Zubikarai saria irabazi zuen Ondarroan 2018an, eta (H)ilbeltza beka Baztanen 2021ean. Hainbat hedabidetan ere kolaboratu du; hala nola, *Goiena*, *Puntua*, *Ttap*, *Hala Bedi*, *Info 7*, *Gara*, *Txapa Irratia*, *Hitzen Uberan*, *Gaztesarea* eta *Xirika* medioetan. Egun *Sagasti Etxea* izeneko literatur bloga du martxan *Goiena.eus* atarian.


- Baztango Udalak, (H)ilbeltza ekimenak eta Txalaparta argitaletxeak elkarlanean antolatzen duten V. (H)ilbeltza bekaren emaitza da eleberrri beltz hau.
- Aezkoako ibarrera garamatza Barberenak, peritu baten eskutik han gertatutako mendi-sute batzuk ikertzera.
- Ipuinak, poesia, elkarrizketak eta nobela jorratu ostean, Eneko Barberena arrasatearra genero beltzaren neurriko eleberria josi du puntadarik hutsik egin gabe.

BILDUMA BEREAN



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus www.txalaparta.eus



Baztango Udala



EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko V. (H)ilbeltza bekaren irabazlea